

...etta **kitto!**

TOKIKOM

793 zkia. 2012-II-10

ASTEKARIA



Urteroko hitzordua antzerkiarekin



Clinica Oftalmologica
RECALDE
Oftalmologia Klinikoa

PRESBIZIAREN KIRURGIA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com


- Antonio Murillo doktorea
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA
- Ainhoa Zulueta doktorea
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA
- Susana Sierra doktorea
ORTODONTZIA, OKLUSIOA



**Edozein tratamendu
dela ere, eskaintzen
dizkizugun abantailekin**

**BELDURRA
DENTISTARI?**

ZER DA HORI?



Sedaziorarekin

gustoa

ematen du!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
ostegunera:
10-14 / 16-20h / Os-
tiraletan:
10-14 / 15-19h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52



IRAZABAL
clínica dental

www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

RPS 04/02



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maider Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALA:

J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*"k ez du bere gain hartzen al-
dizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

INFARNU/INFRAIÑU.- Infernua. "Gaurko beruakin infraiñuan freskuago egongo giñake".

INFARNU BIZIXA.- Egoera latza adierazteko metafora. "Etxekalte harek, infarnu bizixa bere emazte koittuari".

NFRAIÑUKO PATXI.- Deabrua. "Atxi! Atxi! Infraciñuko Patxi!".

INFRAIÑUKO PATXI BERA BAIÑO GORRIXAGUA IZAN.- Norbait oso ezkertiarra (gorria) dela adierazteko konparazioa. "Hónek eibartarrok infraciñuko Patxi bera baiño gorrixaguak dirala pentsatzen juat".

ESKUTITZAK

LAGUN TALDEAREN ZOZKETA ETA ESKER ONA

Hilaren 21ean eta 28an Lagun Taldeak Hezkuntza Esparruan eskaini zuen "Mentiras a euro" ikuskizunaren emanaldi bietan zozketa egin zuten eta hauek izan dira saritutako zenbakiak: 369 (hilaren 21eko zozketan) eta 1043 (28ko zozketan).

Bide batez, lerro hauek aprobetxatuta Lagun Taldeak bere esker ona azaldu nahi die ikuskizunaren ondoren zoriontzera eta laguntasuna adieraztera etorri ziren guztxei. Mila esker denei.

LAGUN TALDEA

asteko

HEMEROTEKA

esaldia

"Intuizioaren eta senaren arabera jokatzen dihardugu: dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon. Baina politika intuizioaren kontrakoa da, eta ez du zerikusirik senarekin. Politika sena eta intuizioak zuzentzeko lana da, gaizki gobernatuta gaudenean akats larriak ez egiteko. Orain gehiago gastatzen egon beharko genuke; burbuilaren sasoiaren berriz, zein politikarik zuen adorea zergak igotzeko edo maileguak eskuratzea zailtzeko? Gertatzen dena da politika gizartearen populismoaren preso dagoela gaur"

(Daniel Innerarity, filosofoa)

"Euskal Herri post-euskalduneari bizi gara: euskara eta erdara ia denon baitan daude. Lehia hemen ez da euskaldunaren eta erdaldunaren artekoa, baizik eta norberaren baitan diren euskaldunaren eta erdaldunaren artekoa. Frantsesaren eta espainolaren estetikak garatuta daude maila guztietan, kolokialean, kulturean, filosofikoan, umorean... Hori etengabe sartzen digute hedabideok, guk nahi eta nahi ez, oihartzun baten modura. Erdaldun pasibo gero eta osatuagoak gara. Euskaraz gauza bera lortu beharko genuke"


(Fermin Etxegoien, idazlea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

asteko

8.000

datua

kilo gatz erabilli zittuen Eibarko Udalak aurreko astian, elurra bota eban lehelengo egunetan. Brigadako bihargiñak biñaka, 10 taldetan ibilli ziran izotza gehixen agertzen dan tokixak garbitzen. Bestalde, abisu gehixen zapatuan, hillaren 4an jaso zittuen.

Diputaziñotik "gehixago espero eban" alkatiak

MIGUEL DE LOS TOYOS-EK INSTITUZIÑUENGANAKO "SENSIBILIDADE ETA MALGUTASUN FALTIA" egotzi detsaz Gipuzkuako Foru Aldundiari. Aurreko astian Udalerrixetarako Finanziaziño Foru Funtzari (Fofim delakuari) 2011ko ekitaldixari dagokixon dirua zelau bueltau aztertzekeo Gipuzkuako alkatiekin izandako billexaren ondoren, "gehixago espero ebela" gaiñeratu eban. Eibarrek 1.954.000 euro bueltau biharko detsaz Diputaziñuari, baiña krisixa dala-eta, zorra epetan itzultzen juateko propo-




samena egiñ eban EUDELEK (zorraren erdixa 2012xan lau epetan eta beste erdixa 2014an eta 2015ian pagatzia), baiña proposamena ezebeziau laga dau Martin Garitano diputau nagusixak eta, beraz, udallexi bakotxak aurten ordaindu


biharko dau tokatzen jakona: lehelengo epia otsaillaren 25erako pagau biharko dabe eta beste erdixa ordaintzekeo orduan hiru epetan pagatzeko aukeria emon detse alkatiexi (maiatza, abuztua eta azaru-
an).

Auto istripuaren lekuko billa

BARIXAKUAN 14:00-XAK ALDIAN EIBARKO BARIANTIAN AUTO ISTRIPIUA GERTATU ZAN autobus batek eta automobil batek talka eginda eta Opel Meganaren gidarixa, 45 urteko Ruben Manuel Rial "Kuki" hil zan. Istripua zelau pasau zan argitzekeo asmuarekin Ertzaintza lekuko billa dabil. Izan be, automobililla eta hutsik zoian autobusaren artian talka gertatuta be, Ertzaintzarendako ezustekua izan zan ibilgailu bakotxa bere erreian topatzia. Lekukuak 943.539125 telefono zenbakira deittu leikie.



Enpresak bihargin batzuk kaleratu nahi dituala salatu eban. / SILBIA HERNANDEZ



Udaltzainguaren kanpaiña barrixa

ASTELEHENIAN EGIN ZETSEN KANPAIÑA BARRIXARI udaltzaiñak. Oinguan autobus-geltokixak kontrolatzen arreta berezixa ipintzen hasi dira eta. Hamendik aurrea, "autobusak ez diran ibilgailuexi ez detsegu gelditzen edo aparkatzen lagako".

Alfakuen manifestaziñua zapatuan

ALFA TALDEKO EIBARKO ENPRESA BATZORDIAK BIXARKO MANIFESTAZIÑUA deittu dau, 12.00xetan Untzagan hasitta. Eurak diñuenez, "zuzendaritzak bihargin batzuk kalera bota nahi dittu. Soldatia %10 jaisteko proposamena egiñ eban, baiña ez genduan onartu eta lantokixen etorkizuna bermatuko daben industria-plana presentatzeko eskatu gentsan. Zuzendaritzak, baiña, bere proposamena onartu ezian kaleratziak planteauko zittuala esan zeskun eta azken billeran asmo horreri eusten detsala berretsi

desku. Negoziatzeko asmorik ez dakela ikusitta, zapaturako manifestaziñua deittzia erabagi dogu". Bihargiñak diñuenez, "Eibarko lantegixetako lantargia haundixa da eta 2011ko fakturaziñuak marka guztiak hautsi zittuan, baiña dirurik ez dakela diñue". Gaur egunian Alfako Eibarko taillarreran, behin-behiñeko kontratuarekin daguazen sei lagun kenduta, gaiñontzekeo 330 bihargiñak mugagabeko kontratuarekin dagoz eta enpresixak "kaleratziak gauzatzeko orduan ez ei dau kontuan izango antziñakotasuna".

Amaña-Legarren trenbidia estaltzeko 17'5 millioi

EGUAZTENIAN EUSKO JAURLARITZAK GURIAN EGITTEN DIHARRUAN BIHARRAK IKUSTEN EGON ZAN IÑAKI ARRIOLA Etxebizitza, Herrilan eta Garraio sailburua, Miguel de los Toyos alkatiak lagunduta. Oin momentuan Eibarren egiten dabizen biharrak batez be trenbidiari lotutakuak dira. Trenbidia bikoizteko Azittaingo biharrak, Txarakuako paso-nibela desagertaraztekuak eta Estaziñoko geltoki barrixa eraikitzeke martxan dagan obria bisitau zittuen agintarixak. Horren osteko agerraldixan, lanak "marxa onian" doiazela esan eta gero, etorkizunerako asmuak aurreratu zittuan Arriolak: Eusko Jaurlaritzak Amaña-Ardantza bittartian trenbidia bikoizteko eta Amaña-Legarre tartia estaltzeko biharren lizitaziño prosesua hasi dabela iragarri eban eta, aurrei-




kuspenak betez gero, biharrak aurtengo udazkenian hasteko moduan egon leikiatzela esan eban. Obra horrendako presupuestua 17'5 millioi eurokua izango da eta 20 hillebetian amaittuko dittue.

EAJ aurrekontuen plenuan abstenituko da

EIBARKO EAJ-K 2012RAKO UDAL AURREKONTUERI EGINDAKO EKARPENEN BARRI emon eban Eva Juezek eguaztenian. Udaleko gobernu taldiarekin adostasuna lortu ondoren, eta "herrixaren

hirigintza arloko eraldaketia eta ekonomixaren berrindartzia helburu" dakela, hiru ekimen estrategiko azpimarratu zittuan: "Errebalerako merkataritza gune barrirako biharren lizitaziñua aurtan, lehelengo sei hillebetekuan egittia, anbulatorixoko pareko plaza inguruan trafikua lurrarazpitik juateko proiektuaren azterketia eta etorkizunian Matsarixa zelakua izan leikian begiratzen juateko lehelengo pausuak emotia". Bestalde, gobernu taldiak aurrekontuak negoziatzeko orduan izandako jarrerarekin "oso pozik" azalduta be, astelehenian 09.30xetan aurrekontuak onartzeko egingo dan plenuan EAJk abstenziñuaren bidia hartuko dabela aurreratu eban.



a u t u a n

TELEFONO BIDEZKO IRUZURRA


Udaltzaiñak emondako abisuari jarraituta, etxe batzuetara telefonoz deittu dabe, anbulatorixuak artritisaren gaiñeko kanpaiñia martxan dakala eta etxera azterketia egittera juango dirala esanda, baiña gezurra da eta argi ibiltzeko eskatu dabe.

PLENO BEREZIXA

Astelehenian 09.30xetan pleno berezixa egingo da udaletxian, 2012rako Aurrekontu Orokorra onartzeko proposamena bozkatzeko. Gobernu taldiaren proposamenak 30 millioiko presupuestua dauka.

San Blas ospatzen

BARIXAKUAN SAN BLAS EGUNA OSPATU GENDUAN eta, ohittuari jarraituta, herriko elizetan meza berezixak egin zittuen opillak bedeinkatzeko. Urtero legez, 11.00etan San Andres elizan egindakuak jende mordua batu eban eta, mezia amaittuta, askok aurtan 13 urte bete dittuen eliza pareko eskulturako umiekin erretratua etara eban.



Ikasleak Eguen Zuriko protagonista

DATORREN ASTEAN SARTUKO GARA BETE-BETEAN ARATOSTEETAN, betiko moduan ikasleak protagonista dituen Eguen Zurian. Ikastetxeetako kalejirak 15.30etan hasiko dira eta, horrez gain, 17.00etan Urkitutik Untzagaraino erraldoi eta buruhandien kalejira egingo da. Ordu berean, baina Untzagan Lisker taldearekin berbena hasiko da eta han bertan, 17.00etatik 19.00etara bitartean, Astixaren eskutik hainbat tailer egongo dira martxan. Besteak beste beldurrezko maskarak, makillajea eta osagarriak lantzeko aukera izango dute bertan parte hartzera animatzen direnek.

Funtzionarioak murrizketen kontra

UDALEKO FUNZIONARIUAK EUREN LAN BALDINTZEN ALDEKO protestekin aurrera segitzen dabe eta, oin dala egun batzuk egindakuaren bideitik, eguazten eguardixan atzera be udaletxeko eta Portaleko bihariñetako askok bat egiñ eban udaletxe parian egin zan alkarretaraziarekin, "Zerbitzu publikuen alde. Murrizketarik ez. Eibarko hitzarmena negoziatu" idatzitta zekan pankartiaren atzian.

40 urte martxan egon den Eibarko Patronatua Errehabilitazio Zentruak ateak betiko itxi berri ditu. Krisia denon ahotan dabilen honetan, baina, gaur egungo egoera ekonomikoak itxierarekin zerikusirik ez duela izan argi laga dute kale gorrian geratu diren zazpi beharginek. Horregatik, prentsaren aurreko agerraldian, orain dela gutxira arte euren lantokia izan dena zergatik itxi behar izan duten argituz: "Osakidetzarekin hitzarmena berritu ahal izateko dokumentazioa txarto aurkezteagatik hitzarmena galdu eta zentrua itxi behar izan dute".

Akats burokratiko batek Patronatua ixtea eragin du

Astelehen goizean kale-ratutako beharginak ordezkatzeko Portalean egon ziren Nerea Zalduegi, June Aranzeta, Ixone Gómez, Blanqui Alvarez eta Amaia Arozenak irakurritakoari jarraituta, "2011. urtearen amaieran zentruak Osakidetzarekin zuen hitzarmena berritzea tokatzen zen. Berritu beharreko hitzarmen horri esker eskaintzen genuen, hain zuzen ere, zentruan hartzen genituen gaixo gehientzat errehabilitazio zerbitzua, gure bezeroen %90 edo gehiago Osakidetza bitartez etortzen ziren-eta".

Beharginek emandako datuei jarraituta, zentruak 1975az geroztik izan du Osakidetzarekin hitzarmena eta bertako fisioterapeutek egunean 100dik gora laguni errehabilitazioa eskaintzen jardun dute iazko urtearen amaiera arte: "Ez dugu behar faltarik izan, oso martxa onean jardun dugu lanean, ixteko erabakia hartu duten arte".

Eta errehabilitazio zentrua ixteko erabakiak Osakidetzako hitzarmena berritu ez izanarekin lotura zuzen-zuzena daukala diote: "Osakidetzarekin hitzarmena berritu ahal izateko dokumentazioa aurkezteko or-

duan izandako akatsengatik, zuzenean konkurtsoetik kanpo geratu gara, Osakidetzak bost urtean behin lehiaketa bidez esleitzen duen paketea eskuratzeko aukera barik. Gure zuzendariak 88 urte dauzka eta, behin baino gehiagotan arduretako batzuk beste norbaiten esku lagatzea eskatu arren, inork ez digu kasu egin eta ez zentruko batzordeak ez beste inork ez du gainbegiratu zuzendariak egindakoa".

Errekurtsioa ez onartzea

Dokumentazioa aurkezteko orduan bete beharreko baldintzen arabera, besteak beste, hiru kartazal entregatu behar ziren lehiaketan sartu ahal izateko: "A, B eta C kartazalak bereiztuta aurkeztea eskatzen zuten, eta gure zuzendariak ez zuen C delakoa, hain zuzen ere eskaintza ekonomikoa jaso behar zuen sobrea aurkeztu eta, ondorioz, zuzenean lehiaketatik kanpo geratu ginen". Gauzak horrela, beharrean zeuden pare bat fisioterapeuta gerta-



Errehabilitazio zentroko beharginak astelehenean emandako prentsaurrekoan / SILBIA HERNANDEZ

tzen ziharduenaz zerbait jakiten lehenak izan ziren, abenduaren 16an batzordeko kide batek "kontutxo bat komentatu" nahi ziela esatean: "Gerturatu eta Osakidetzako hitzarmen barik geratu ginela esan zigun, hori zen kontutxoa. Hala ere, lasai egoteko esan zigun, errekurtsioa aurkeztu eta dena konponduko zela".

Baina zentruko batzordekoek errekurtsioa aurkeztuta ere ez zieten onartu eta hortik, 40 eguneko tartean, arazo barik beharrean jardutetik zentrua itxi eta langabezia egotera pasatu dira beharginak: "la egun batetik bestera gure burua kale gorrian ikusi dugu. Gainera, orain dirurik ez dagoela diote. Enpresak zentrua hartzekodun-lehiaketara aurkezteko asmoa duela esan digu eta, beraz, dagozkingun indemnizazioak, txikienak ere jasoko ote ditugun zalantza daukagu. Gutariko batzuk 30 urtean bertan beharrean jardun eta gero dagokiguna ere ez dugu jasoko eta zuzenean FOGASARA bidali nahi gaituzte".

Beharginek argi laga dute "zentrua ixteko arrazoia hitzarmena berritzeko orduan dokumentazioa txarto aurkeztu izana, besterik ez dela izan". Bestalde, arazoaren berri izan eta kaleratze-gutuna jaso dutenez geroztik enpresak eurekiko izan duen jarrerarekin "engainatuta" sentitu direla adierazi zuten agerraldian, "eta horrenbeste urtean bertan beharrean jardun ondoren enpresaren aldetik jaso duten babes eza izugarria" izan dela salatu zuten. Hain zuzen ere, eurek diotenez jarrera horrek bultzatuta erabaki dute herri-tarrei gertatutakoaren berri ematera. Eurek eskaintako zerbitzua bertan behera gertatzeak, bestalde, gaixoei zuzenean eragingo diela pentsatzen dute, itxaron-zerrendak luzatuta, "Amostegik eta Osakidetzak berak hartu beharko dituelako".

Agerraldia amaitu aurretik, Patronatutik pasatu diren guztiei euren eskerri beroena adierazi zieten, "urte hauetan guztietan erakutsi duten konfidantzagatik eta guretzat horren gogorrek diren une latz hauetan gurekin egoteagatik, eskerrik asko eta betira arte".



Martitzenian presentatu zittuen 35. Eibarko Antzerki Jardunaldixak udaletxeko pleno aretuan Miguel de los Toyos alkatiak eta Txema Cornago eta Juan Ortega jardunaldixetako antolatzailliak. Krisixaren eragiñetik ihes egitteko aukera barik, aurten 155.000 euroko presupuestua erabili dabe programia osatzeko. Antolatzailliak esandakuari jarraituta, "gure sasoirik onenian 179.000 euroko presupuestua izatera ailegau giñan, baiña gagozen egoeran egonda benetan eskertzekua da instituziñuak egitten daben ahalegiña eta, zelan ez, komunikabidiak emoten daben laguntasuna eta Jardunaldixeri egitten detsen jarraipena". Sasoirik illunenian be, Antzerki Jardunaldixak atzera be kolorez beteko dabe gure herrixa.

Antzezlan gixiagorekin osatuta egon arren, gehixago irarungo dau aurten, otsaillaren 17xan hasi eta martxuaren 31ra bittartian. Antolatzailliak urte guztian 350 lanikusi dittue, horren artian onenak aukeratu eta presupuestuak emoten detsen aukerak baliatuta programia osatzeko. Eta aste honetan bertan egindako presentaziñuan antolatzaillien ahalegiñaren emaitzaren barri izan dogu.

Programia aurten 10 urte beteko daben giza-irudixen erakustaldixarekin hasiko da, Aratostiekin batera Barixaku Erregularrian. Bolivia, Argentina, Venezuela eta Italiatik ailegauko jakuz aurten Bartzelonako M.P.C. taldiarekin jarduten daben aktoriak, bakotxa personaje barri eta are ikusgarri-xaguarekin: Gualberto Marqués zaldi gaiñeko zenturiotz erromatarra izango da, Jorge Balmaseda zentaurua, Karina Valderrama

guardasolaren anderia, Orlando Briceño kuadro urdiña eta Josefin Vermejo, barriz, arbola. Untzaga eta Toribio Etxebarria kailian egongo dira hillaren 17xan, 17.00etatik aurrera.

Hasiera ekitaldirako, barriz, ohiko martxiari jarraituta goi mailako gonbidatua ekarriko dabe Coliseoraiño hillaren 22xan. El Diario Vasco Aula de Cultura dalakuaren eskutik, Juan Carlos Rubiok jardungo dau aktore bari-ko antzerkixaz berbetan, Juan Ortegak berak koordinauko daben solasaldixan. Ekitaldixan Narruzko Zezen antzez gidoi eta artikulendako lehiaketako irabazleri sarixak banatuko detsez.

Eta hitzaldixaren ostian, orduan hasiko dira antzezlanak bata bestieren atzetik taularatzen. Euskerazko lan batekin hasiko da programia, Txalo Produksioak-en "Hil arte bizi" izenburukuarekin. Begoña Bilbako zuzenduta, Sara Cozar, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga alkarrekin ikusteko aukeria eskinduko daben ordu t'erdiko antzezlanian heriotzaren

gaiñan diharduan komedixia topauko dabe ikusliak.

Aurpegi ezagunak

Publikua horrenbeste erakarri ohi daben aurpegi ezagun horretako batekin ailegauko da hurrengo lana: Bartzelonako Compañía El Cansancio-ren "La apoteosis necia" antzezlanian Berto Romero, Buenafuenteren programak ezagutzera emondako eskarmentu haundiko aktoria ikus-

teko aukeria izango da, aldame-nian Marc Martínez eta Miquel Company dittuala. Izan be, bakarrizketa eta musikia tartian dirala, ikuskizun komiko ederrarekin datoz Kataluñako antzerki taldekuak, 2002xan estrenautako antzezlan lehelengo aldiz Euskal Herrixan presentatzeko gertu.

Keiñu bidezko antzerkixak be eukiko dau aurtengo programaziñuan, geure artian ezaguna dan Portugalgo Companhia do Chapiroren eskutik: oinguan "Perro que muere no ladra" antzezlanarekin etorriko jakuz, umore baltza nagusi dakan lanarekin hain zuzen be.

"El Lazarillo de Tormes" moduko klasiko baten moldaketia taularatuko dabe Madrilgo Mirage taldekuak, "Lázaro" izenburukuan. Berezittasun modura zuzeneko musikia eskinduko dabe Juan Ayalak zuzendutako antzezlanian.

Atzera be euskerazko beste lan batekin gozatzeko aukeria eskinduko dabe Tanttaka taldekuak, Valentziako Albena Teatre eta A Coruñako Eme2 Producciones taldekuarekin alkarlanian: Jordi Sierra i Fabraren testuan oiñarritutako "Kafka eta panpin bidaia-ria", 6 urtetik aurrerako publikuarendako egokixa dan antzezla-




Tanttakaren "Kafka eta panpin bidaia-ria"-ren irudixa.



Cornago, De los Toyos eta Ortega jardunaldien aurkezpenean. / SILBIA HERNANDEZ

nak "Metamorfosia"-ren egillia da protagonista, baiña kopiña galdu daben neska bateri negar egittiarri lagatzeko kontatzen dituan istorixuak osatzen dabe antzezlanaren argumentua.

Madrilgo Pentación taldiarekin, barriz, oin dala urte batzuk jendetza Coliseoraiño erakarri eban Lola Herrera ezaguna atzera be gurera etorriko da, Daniel Freire eta Ana Labordetarekin batera "komedia hutsa" dan "Querida Matilde" izenburuko antzezlan eskintzera. Eibarko Emakumien Mahaixarekin alkarlanian programatuko lana egun bittan, mar-



"Negra" ekarriko dau Teatro Meridionalek.



txuaren 4an eta 5ian taularatuko dabe. Beste toki askotan arrakasta haundixa euki daben antzezlanena Euskal Herrixan estreñieko presentatzeko balixoko dabe Eibarko emanaldi bixak, horren ostian hamen inguruan beste antzoki batzutan erakusteko birari ekin-got detse-eta.

Emakumien Mahaixarekin alkarlanian

Kalendarixuan hurrengua dan "Negra" be Eibarko Emakumien Mahaixarekin batera antolatu dabe. Madrilgo Teatro Meridional taldiak dakarren antzezlanak protagonista bakarra dauka: Maria Szerezovsky. Baiña antzezliak hiru andraren gorabeherak kontauko detsaz ikusleri, beste horrenbeste bakarriketan.

Eta antolatzailliak beti antzezlan guztiak "oso gomendagarri-

xak" dirala errepikatze-ko ohituria izanda be, aurten behin baiño gehixagotan bereziki azpimarratu nahi izan daben antzezlanena da programak jasotzen daben hurrengua: "El fantástico viaje de Jonás, el espermatozoide", Málaga-ko El Espejo Negro taldiarena lana. Beste batzuk be emanaldi bikoitzian programata dagoz, baiña antzezlan honetan bada berezittasunik: barixaku gabeko funziñua helduendako pentsauta antzetzuko dabe eta bixamonian, zapatu arratsaldian, barriz, 7 urtetik aurrerako umientzat eta famelixendako egokittutako bersiñuan ikusteko aukeria egongo da. Jonás izeneko espermatozidia protagonista dakan antzezlanena "oso didaktikua" dala esatiaz gain, txotxongillo bittartez antzetzuko daben lana "benetan dibertigarria" dala diñue antolatzailliak.

Dramak nahixago dabenendako, "La reina de la belleza de Leenane" lanarekin generuarekin gozatzeko aukera eukiko dabe. 1998xan kritikak urteko antzezlan onenari sarixa emon zetsan antzezlanena Sevillako Gloria López Producciones taldiarena eskutik aillagauko da gurera, Euskal Herrixan estrenua izango dan funziñuan.

Madrilgo Producciones Andrea D'Odorico-ren "La escuela de la desobediencia" antzezlanak, barriz, Italiako urrezko menderaiño eruango gaittu, sexuarekin lotutako edukixekin gaiñezka egitten daben biharrian. María Adánenezek eta Cristina Marcosek argi eta garbi helduko detse sexuaren gaixari, euretako batek ezkontzetan dan bestiari aholkuak emoteko aitzakixarekin sortzen juango diran alkarriketan.

EGUNA	ORDUA	EKITALDIA	LEKUA	PREZIOA
17, barixakua	17.00	Giza Irudixen X. Erakustaldixa	Untzaga/T. Etxebarria	
22, eguaztena	19.00	Irekiera-hitzaldixa: Juan Carlos Rubio	Coliseoa	
23, eguena	17.30/21.00	Zinia: "Melanconia"	Hezkuntza Esparrua	2 €
25, zapatua	20.30	"Hil arte bizi", Txalo Produksioak	Hezkuntza Esparrua	11 €
27, astelehena	20.30	"La apoteosis necia", El Cansancio	Hezkuntza Esparrua	15 €
28, martitzena	20.30	"Perro que muere no ladra", Companhia do Chapitô	Coliseoa	11 €
29, eguaztena	20.30	"Lázaro", Mirage Compañía de Teatro	Coliseoa	11 €
MARTXOA				
1, eguena	17.30/21.00	Zinea: "El hombre de allado"	Hezkuntza Esparrua	2 €
3, zapatua	17.00	"Kafka eta panpin bidaiaria", Tanttaka / Albená/ Eme2 Prod	Coliseoa	5 €
4, domeka	20.30	"Querida Matilde", Pentación Espectáculos	Coliseoa	15 €
5, astelehena	20.30	"Querida Matilde", Pentación Espectáculos	Coliseoa	15 €
6, martitzena	20.30	"Negra", Teatro Meridional	Hezkuntza Esparrua	11 €
8, eguena	17.30/21.00	Zinea: "El fin es mi principio"	Hezkuntza Esparrua	2 €
9, barixakua	20.30	"El fantástico viaje de Jonás...", El Espejo Negro (helduendako)	Coliseoa	11 €
10, zapatua	17.00	"El fantástico viaje de Jonás...", El Espejo Negro (umeendako)	Coliseoa	5 €
12, astelehena	20.30	"La reina de la belleza de Leenane", Gloria López Prod.	Hezkuntza Esparrua	11 €
15, eguena	19.30/22.00	"La escuela de la desobediencia", Prod. Andrea D'Odorico	Coliseoa	15 €
17, zapatua	20.30	"Don Juan Tenorio", La Gamacha Teatro	Hezkuntza Esparrua	11 €
20, martitzena	20.30	"Un loco de desatar (las paradojas de El Cósmico)", Traslada Teatro	Coliseoa	11 €
21, eguaztena	20.30	"El juicio de Dayton", Azar Teatro	Coliseoa	11 €
22, eguena	17.30/21.00	Zinea: "Cartas a Dios"	Hezkuntza Esparrua	2 €
23, barixakua	20.30	"In verso: de sapos y lunas", Armadanzas, Univ. de León	Coliseoa	5 €
24, zapatua	20.30	"La máquina Hamlet", El Mayal, Univ. de León	Coliseoa	5 €
27, martitzena	20.30	"El nacional", Els Joglars	Coliseoa	15 €
28, eguaztena	20.30	"El nacional", Els Joglars	Coliseoa	15 €
29, eguena	17.30/21.00	Zinea: XII. Asier Errasti Laburmetraia Jaialdiko laburmetraiak	Hezkuntza Esparrua	
31, martitzena	20.30	"Ipar haizearen kontra", Tanttaka Teatroa	Coliseoa	11 €

Eta antzerki munduan izenburu aski ezaguna izanda be, oiñ arte Eibarko Antzerki Jardunaldixetan sekula taularatu bariko "Don Juan Tenorio" Errioxako La Garnacha taldiarekin aillagauko da Hezkuntza Esparrura. Hau be lehelengoz taularatuko da Euskal Herrixan.

Eibartarrak taula gaiñian

Eta estreñiekoz Coliseuan erakutsi eben "Un loco de desatar (las paradojas de El Cósmico)", Juan Sánchez Vallejo psikiatra eibartarraren liburuan oiñarritutako antzezlanaz atzera be Coliseo antzokira bueltatuko da, Sardo Irisarri aktore eibartarrarekin eta Trastada Teatro talde gipuzkoarraren eskutik. Eta eibartarra da baita antzezlanaz zuzentzen daben Rosa Martínez-Alcocer be. Gure herriko antzerkigintza ordezkatzeko antzezlan ezin egokixagua, beraz.

Euskal Herri maillan gurian estrenatuko daben "El juicio de Dayton" antzezlanaz Valladolidedeko Azar Teatrok ekarriko daben drama soziala da. 1960xan Stanley Kramerrek zuzendutako



"El fantástico viaje de Jonás el espermatozoide" lanarekin, El Espejo Negroko kidiak umiendako eta helduendako funziño desbardiñak eskinduko ditue.

"La herencia del tiempo" pelikularen bersiño libria da eta Darwinen eboluziñuaren teoriaria jarraitziarren epaitegixetara eruan eben irakasliaren bizipenak kontatuko deskuz.

Eta konpaiñia profesionalak programiaren zatirik haundiña betetzen badabe be, urteroko moduan aurten be unibersidadeko taldiak euren tokixia eukiko dabe. Leongo Unibersidadedeko Armandanzas taldekuak "In verso: de sapos y lunas" izenburukua taularatuko dabe eta, antolatzaillien berbetan "sarreriak 5 euro bakarrik balixo dau eta neska-mutillak behiñ honaiño etorritta, ia publiko nahikuaren aurrian jarduteko aukeria emoten detsagun, profesionalak izan barik be benetan ondo egitten dabe-eta". Antzezlanaz dantza bittartezko interpretaziñuan oiñarritzen da.

Eta Leongo Unibersidadetik etorriko dan beste taldiak, El Mayal antzerki taldiak, "La máquina Hamlet" izenburuko antzezlanaz taularatuko dau lehelengoz Euskal Herrixan. Iazko martxuaz gerotzik erakutsi daben antzokixetan oso harrera ona euki daben lanak XX. mendeko gaitzetako bateri heltzen detsa, boteriaren totalitarismo sistematikuari hain zuzen be.

Eta Els Joglars talde ezaguna lehelengoz "bere nukleo gogorra-

Eta aurtego jardunaldixak euskeraz hasi eta euskeraz amaittuko dira, Tanttaka Teatroaren "Ipar haizearen kontra" antzezlanaz agurtuko ditualako antzerki emanaldixak. Itziar Aienza, Joseba Apaolaza eta Félix Arkarazo protagonista dituan antzezlanian maitasunaren mugak, sentimenduak itoarazteko ahalegiñak, zorientasuna billatzia eta horrelako beste kontu batzuk landuko ditue antzeziak.

Antzerkixia Zineman

Eta, zelan ez, Antzerkixia Zinema atalian "Melancolía" (Zuz: Lars Von Trier), "El hombre de al lado" (Zuz: Mariano Cohn, Gastón Duprat), "El fin es mi

Promosiño berezixak Coliseoko salmentan

Antolatzailliak ahalegiñ haundixia egin dabe sarreraren prezioari eusteko eta, salbuespenak salbuespen, oin dala lauzpabost urteko prezio berbera eukiko dabe sarrerak aurten be. Merkienak 5 eurotan eta karuenak 15 eurotan ipiñiko ditue salgai, baiña gehixenak 11 euroren bueltan ibilliko dira. Gaiñera, Coliseo antzokiko sarreraren egingo dan aurrezalmentan promosiño berezixak eskinduko dituela aurreratu dabe antolatzailliak. Coliseoko alde aurreko salmenta otsaillan 11n 10.00etatik 16.00etara eta otsaillan 12, 13, 18 eta 19xan, 10.00etatik 14.00xetara egingo dabe. Hortik aparte, emankizun bakotxaren aurretik takillan egun horretarako sarrerak salduko ditue eta emankizunak amaitzian beste egunetarako ikuskizunetarako sarrerak erosteko aukeria eukiko dau nahi dabenak.



rekin" Eibarren ikusteko aukeria egongo da aurten. "El nacional" lanarekin etorriko jakuz Ramón Fontserè, Begoña Alberdi, Jesús Agelet, Enrique Sánchez-Ramos, Pilar Sáenz, Minnie Marx, Dolors Tuneu, Xavi Sais eta Lluís Olivé, bestiak beste zuzeneko musikaria, operaria hain zuzen be batzen daben antzezlanarekin.

principio" (Zuz: Jo Baier), eta "Cartas a Dios" (Zuz: Eric-Emmanuel Schmitt) pelikulak, danak be antzerkixareki loturia dakenak eskinduko ditue Ego Ibar zineklubaren laguntasunarekin programatuko emanaldixetan, Asier Errasti XII. laburmetraia lehiaketako lanen proiektiñuarekin batera.



Els Joglarsek "El nacional" lanaren saio bi eskainiko dituzte, martxoaren 27an eta 28an.

TEEN-
AJEK

Belarritakoak, eraztunak, koilarak, paparrekoak... daude The Cottage Manualidadesen katalogoan, baina bere sortzaile Idoia Alvarok dioenez, "diademak eta abar egiten ere hasi nahi dut". Facebooken aurkitu dezakezue eibartar honek bere eskuakin egindako lanak eta, gustatu ezker, eskaera egin.

IDOIA ALVARO (The Cottage Manualidades): "Eskura dituzun gauzekin eskulan asko egin ditzakezu"

- Nola hasi zenuen The Cottage Manualidades?

Txikitatik egin ditut eskulanak, amari ere egitea gustatzen ziztaizkiolako. Niretzako gauzak egiten hasi nintzen, eta jendeak gauzak egiteko eskatzen zidanez, Facebooken The Cottage Manualidades orrialdea ireki nuen. Lagunek ikusi zezaten sortu nuen, baina ezagutzen ez nuen jendea agertu zen. Orokorean lagunek eskatu didate gauzak egiteko, baina izan ditut ezezagunen eskaerak ere. Zein zen ere ez nekien jendeari bidali dizkiot produktua!

- Hori izan daiteke Facebooken abantaila bat.

Facebooken jendeak zer egiten duen, noren laguna den eta abar ikusi dezakezu eta, horrela, nire orrialdea hedatuz joan da.

- Nola funtzionatzen du The Cottage? Katalogoa daukazu edo eskakizunen bitartez egiten duzu lan?

Gauzak egiten ditut, jendeak ikusi eta horietatik aukeratutakoren bat eskatzen du. Jendeak egiten dakidan zerbait eskatzen badit, egiten dut. Gauza ez da egiten dakidala, baizik eta non-

bait ikusi eta egiten ditudala: koadrilako batek alanbrezko eraztuna nahi zuen eta egin nion, nire ahizpari ileko urkilak asko gustatzen zaizkio eta egin nizkion. Horrela, egin ahala ikasten noa.

- Materialei dagokienez, nola moldatzen zara?

Berrerabiltzen ditudan gauzak daude (adibidez, laten eraztunak) eta beste batzuk erosi egiten ditut. Baditut, adibidez, botoiekin egindako eraztunak. Eskura daukadanarekin gauzak egitea bururatzen zait.

- Lanaren kostua ez da altua.

Erabiltzen dituzun materialaren arabera. Eskulanetarako erabiltzen den materiala garestia da, baina eskura dituzun gauzekin eskulan asko egin ditzakezu (etxeko lazoak, botoiak...).

- Zenbat denbora behar duzu eskulanak egiteko?

Nire denbora librean egiten ditut. Eskatutakoa azkar egiten saiatzen naiz, baina normalean aspertuta nagoenean egiten ditut eskulanak (barreak).

- Noiztik proiektuak?

Facebookeko orria orain dela hiru hilabate jarri nuen martxan, berria da eta lagun asko ditu.

Debabarrenan makina-erremintan diharduen enpresak TEKNIKO KOMERTZIALA behar du.

- Hidraulika eta neumatikan **3 urteko esperientzia**, komertzial edo muntatzaile bezala.
- **Euskera** menperatzea eta **ingeleza** jakitea.
- **Gidatzeko** baimena eta ibilgailu **propioa**.
- Aurkeztutako **profil pertsonal** eta profesionalaren arabeko **ordain-saria**.

Curriculumak bidaltzeko:
tecnico.comercial4@gmail.com



● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73


Herritasunerako Hezkuntza irakasgaixa kendu dau eskoletatik Espaiñiako Gobernu barrixak, euren ustez adoktrinamendua sustatzen ebalako ikaslien artian. Erabagixaren kontrako iritzixak, bestalde, erlijio irakasgaixak be adoktrinamendu ideologikua sustatzen dabela eta hori ez dabela kendu salatzen dabe.

Eskolan erlijio klasiak emotiaren alde ala kontra zagoz?



JAVIER BAZ
42 urte
bihargiña

Ez dot pentsatzen eskolak leku aproposak diranik erlijio ikasteko. Begittantzen jata bakotxak aukeratu bihar dabela hori ikasi edo ez, baiña ikasi nahi dabenak juatia daka elizara, horretarako dago-eta.



AINHOA BILBAO
38 urte
dendarixa

Ni ados nago eskoletan erlijio klasiak emotiarekin, izan be, begittantzen jata danondako aukerak eskindu bihar dirala, gero bakotxak beran aukeria egiñ ahal izateko.


MIKEL LAZPITA
36 urte
komertziala

Ondo ikusten dot eskoletan erlijio irakasgaixa emotia, beti be hautatzeko aukeria badago. Bakotxa libre da zer ikasi nahi daben edo ez aukeratzeko, orduan, erlijio nahi dabenak aukera izatia eta nahi ez dabenak be.



SUSANA GARCÍA
35 urte
langabia

Erljiuaren irakasgaixa aukerazkua izan biharko leuke. Gaur egunian jendia ez da oso erlijio-sua, baiña txikittatik katolizismuaren siñismenian hezitzen bazara, egon biharko litzake aukeria erlijio ikasteko. Modu berian, ikasi nahi ez dabenak aukeria euki biharko eban ez ikasteko.





11^o **EUROPA MAILAKO KANPAINA**
ENTZUMEN ARAZOEI AURRE HARTZEKO

urtarrilaren 9tik martxoaren 1era arte

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN LAGUNGU NAHI DIZUGU

Aprobetxa itzazu ordaintzeko erraztasunak eta eraman ezazu zure audifonoa

* Kanpaina honen bidez 2017-2018 urterako, Entzumen Arazoak dituzten pertsonen laguntza eskaintzen dugu.

Bidebarrieta 2 • Tel.: 943 20 61 14 • EIBAR



GAES
Entzumen Zentroak

590€



GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
Instalakuntzak eta konponketak
antena - telebista
Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxe. 943 20 73 60
www.trinmer.com
trinmer
TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ARKITEKTOAK

USONAGA ILUTERAN
ARKITEKTOAK
Jerenbide & behea
Tfnoa: 943 20 00 73
www.arkitektoak.com

PROIEKTUAK
DIRANZKINDA
ESTRUKTURAK
ERREFORMAK
DOKUMENTAZIOA
DISEÑUAK
ANPLAZAMENAK
L.L.E. INFORMEAK

AROTZAK

IÑAKI
Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak
Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ulmar S.L.
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

ELECTRICIDAD
CUADRA E.C.
SERVICIOS DE INSTALACIONES Y REPARACIONES
MANTENIMIENTO DE INSTALACIONES
TELECOMUNICACIONES
INDUSTRIAS Y MANTENIMIENTO
PROYECTOS Y
SERVICIOS

GURIA
ELEKTRIZITATEA
* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak
Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**
Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua
Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 21 - 1. F

TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxe: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
Garbiketa eta
mantenimendua

HODI-LIBRATZEAK

ATAK
— Hodi-libratzeak
— Saneamenduen garbitzea
— presio handiko makinariarekin
— Ur ateratzea ufaletan ondoren
www.desatax.com
LARRALDIETARAKO (24 ordutan): 673 304 222

IGELTSEROAK

IGELTSERITZA
**CAMILO
ALVAREZ** OROKORREAN
— Barne erreformak
(sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
— Gremioen koordinaketa
Jardiñeta, 25 - behea
Etxeko tfnoa. 943-207678
Mobila. 620 060 104

irazabal
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



ITURGINTZA

 **MUGICA**
ITURGINTZA

*AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...*
HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxe. 943 20 72 24

KRISTALAK

 **ACHA** *Kristaldegia*
ERREKATXU, 3^{an}
KRISTALARLOKO SOLUZIOAK
c.acha@euskalnet.net
eta faxe: 943 20 39 03

PINTURAK

 **AIXA**

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etzerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe. **943 20 05 94**
T. Etxebarria, 8 - behea

 **Nexa Autocolor**

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxe: 943 70 06 89

 **E Pinturas**
Elias e Hijo, S.L.

**pintura eta estaldura
mota guztiak**

BARAKALDO, 7
Telefonoa: 943 12 05 02
Mobilak: 618 27 28 91 / 639 76 27 97

 **MALVAR**
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako dekorazioa

Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

 **MAYO**

VICTOR GONZALEZ FRAIZ
PINTURA OROKORREAN

**BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...**

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

SARRILAGINTZA

 **GILTZAK**

Era guztiako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztiako giltzen kopiak
Trabatutako ateak eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxe. 943 20 86 99

Hierros Anetxe errugbi taldeak lidergoa ziurtatu du

ASTEBURUAN GERNIKA B AZKEN SAILKATUAREN AURREAN LORTUTAKO GARAIPENAK (55-0 eta bederatziti entsegu), 1. Nazional mailako B multzoko lehenengo postua ziurtatu dio matematikoki Hierros Anetxe taldeari. Horrela, Ohorezko B mailara igotzeko kanporaketan beste multzo bateko bigarren sailkatu batekin lehiatu beharko du, bigarren partidua Unben jokatzera ziurtatuz: kanporaketa irabaziz gero, zuzenean igoko dira eibartarrak eta, galduz gero, beste aukera bat izango lukete.



Amantegi abadiñoarrak min hartu zuen finalerdian.

Eibar Eskubaloia Gipuzkoako lurraldeko 1. mailako talde berria

EUREN IBILBIDEARI IRMO EUTSIZ, IMANOL ALVAREZEK ZUZENTZEN DUEN TALDEAREN jokalariek beste garaipen bat eskuratu zuten Usurbilen, 24-38ko emaitzarekin. Liga amaitzeko lau jardunaldiren faltan eta sailkapeneko 3.ari ateratzen dioten aldea ikusita, garaipen bakarra behar dute Eibar Eskubaloiakoei lurraldeko 2. mailatik lehenengora igotzeko. Asteburuan Talleres Ondoren aurka jokatuko duten partiduan bete dezakete helburua.

Waterpoloko euskal selekzioa Orbean

AURREKO DOMEKAN URBAT-URKOTRONIK-EKO KADETE MAILAKO TALDEAK infantil mailako euskal selekzioa izan zuen aurkari Orbeako igerilekuan. Azkenean amore eman behar izan zuten eibartarrek (7-11), neurketa gogor baten ondoren.



Urkiko nesken taldeak 1. faseko partidu guztiak irabazi ditu

ELURRA ZELA-ETA, AZKEN JARDUNALDIAN AURKARIA EZ ZEN AURKEZTU UNBEN eta aldeko 3-0ko emaitza eman zaio Eibarko taldeari. Lehen fasea amaituta, Urki A taldeko neskek jokatutako 12 partiduak irabazi dituzte, 70 gol sartuz eta bakarra hartuta. Hurrengo astean txapeldunen faseari ekingo diote.

Pilota partiduak gaur eta bihar

UDABERRI TORNEOKO HIRU PARTIDU JOKATUKO DIRA GAUR ASTELEENAN 20.00etan hasiko den jaialdian: hasteko, alebiletan, Iriondo-Ibarluzea Idiazabalgo ordezkarien aurka; eta, jarraian, senior mailako neurketa bi (Unamunzaga-Egaña bikoteak Azkoitiko ordezkariak izango ditu aurrez-aurre eta Larreategi-Agirrebeñak Alegiakoak). Bihar, bestalde, partidu bi jokatuko dira kiroldegian: kadete-etan, Arrillaga-Urionabarrenetxea Usurbilgo bikotearen aurka; eta jubiletan, Zubizarreta-Agirresarobe Urrietakoen kontra.



irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Azitain Industrialdea, 3 - H 943 120108

IGELTSERITZA LANAK ETA GREMIOEN KOORDINAKETA

KALITATEZKO OBRAK

Sukaldeak, komunak edo etxe osoak

Teilatuak, impermeabilizazioak, pabilioiak, bulegoak, dendak...



%5
eko
DESKONTUA

SUKALDE eta BAINUGELA erreformetan
(IGELTSERITZA lanetan)
maiatzaren 31ra arte

IGOITZA NAGUSIA
Bilberrizeta 20 - beheko eskua

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa laber
Egoibonari (Signo poligonari)
Partikular, mutua eta seguru enosi zerbitzuak
Koroak - Eskelak - Uteuerriko sikelak
Euskal Herri osoan ospitaleen hartzen zaitugu
Nazio eta Nazioarteko Iratziak

Mugica Ehorzketa
Puzteak eta Iratziak

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951



Jose Luis Akarregi pilotari-ohia hil da

LEKEITIARRA IZANDA ERE, ASPALDITIK GURE ARTEAN BIZI ZEN JOSE LUIS AKARREGI pilotari-ohia martitzenean hil zen, 88 urterekin. Aurrelari handienetakoa izan zen pilota profesionalen eta, buruz-buruko hiru finaletan izan arren, ezin izan zuen txapelik irabazi: 1946an Atano III. arekin galdu zuen eta 1950ean eta 1951n Gallastegirekin, lehenengo bietan Astelena frontoian. 2001ean Eibarko Kirol Sarietako VII. edizioan, berak eta Gallastegik jaso zuten Sari Bezezia, berak jokaturako azken finaren 50. urteurrenean.

Erritmikako eskolarteko denboraldiaren hasiera

BIHAR ARRASATEN HASIKO DA IPURUA KLUBEKO ESKOLARTEKO DENBORALDIA, jubenil mailako taldearen parte-hartzearekin A mailako txapelketan. Graxi Arregik, Nahia Bilbaok, Olaia Golzarrik eta Ane San Martinek osatuko dute laukotea eta, banakako jardunean, Maialen Oregi soraluzetarrak osatuko du boskotea. Hilaren 25ean eskolarteko B txapelketa jokatu da Ipuruan, infantil, alebin eta benjamin taldeekin.



Eibarko Duatloia martxoaren 3ra aurreratu da

DENBORALDI BERRIRAKO TRIATLOI ETA DUATLOI EGUTEGIA KALERATU DA eta gure herriko duatloia XXI. edizioa inoiz baino lehenago jokatu da, martxoaren 3an. Euskal Herriko txapelketako egutegian 14 duatloi (maiatzera arte) eta beste hainbeste triatloi (maiatzetik aurrera) jokatu dira Euskadin eta beste zazpi proba (lau duatloi eta hiru triatloi) Nafarroan, Gasteizeko munduko txapelketa eta Plentziako acuatloiatik aparte.

Aurreko zapatuan, bestalde, Donostiako Amara Hotelean egin dako ekitaldian banatu ziren azken denboraldiko Euskal Herriko triatloi eta duatloi sariak. Gala horretan Eibar Triatloi Taldeko hiru ordezkari bakoitzak bere mailako lehenengo postuari zegokion saria jaso zuten: Alejandro Altunak beteranoen 2. mailakoa, Ane Ziaranek 23 urtetik azpikoa eta Andoni Lópezek kadete mailakoa.



Ruibal: 11 partidutik 11 garaipen

RUIBAL ALQUILER DE VEHICULOS SASKIBALOI TALDEAK BIDE EZIN ZUZENAGOA darama mailaz igotzeko helburuarekin. Jokaturako hamaika partidua irabazi ditu, azkena Donostian Munderro - La Salle taldearen aurrean (53-68). Miguel Angel Sánchezek zuzentzen duen taldea lehen laurdenean hasi zen neurketa erabakitzen (11-27) eta Aitor Azurmendik gordetzeko moduko partidua egin zuen, taldearen puntu erdiak baino gehiago lortuz (35). Bihar Ipuruan Billabonako Trade izango dute bisitari.



EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
2011/2012

MATRIKULA LIBREA

Otsailaren 10etik martxoaren 1aren 15:00ak arte

HIZKUNTZAK: ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA ETA INGELESA

Matrikula egin nahi dutenek **Internetez bakarrik** egin ahal izango dute www.eoieuskadi.net orrian.

Argibide gehiago: www.eoieibarheo.net orrian edo **943200618** telefonoan.

Otaola etorbidea, 3 - atzea (Hiper Eroskiren alboan)

Iruki
Sagardotegia

Tel. 943 20 68 44
irukieibar@hotmail.com
www.irukieibar.com

GAZTEMENUA
barixaku gaetan
txotxa eta garagardoa barne



Entsalada mixtoa edo
Bakailao tortila edo
Bakailao konfitatua

Txerri-saiheskia parrillan edo
Ollasko erreka parrillan edo
Okela gisatua

(Hirurak patata goarnizioarekin)

Gaztala, intxaurrek
eta menbrilloa

Ogla, ura, ardoa, garagardoa eta sagardoa

Datorren astelehenean, 13an, torturari buruzko hitzaldia eskainiko dute Julen Arzuaga abokatu eta Giza Eskubideen behatzaileak eta Arantxa Erasun Euskal Memoriako kideak. Saioa 19.00etan hasiko da Portalean eta 'Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian' du izenburua.



ARANTXA ERASUN (Euskal Memoria):

"Torturen kasuan egira hurbiltzen hasi gara"

- Torturaren errolda osatzeko lanean dihardu Euskal Memoriak. Nolako lana da?

Bi urte dira martxan jarri eta urtero memoriarekin lotutako monografiko bat jorratzen dugula. Aurten, azken 50 urtetan torturatu dituztenen errolda dihardugu egiten herriz-herri. Badakigu azken 50 urtetan milaka pertsona atxilotu dituztela, baina errealitate ezezaguna da hori. Eibarren ere bilduma lana dihardugu egiten eta, horretarako, atxilotuen zerrendak osatzen, zeintzuk izan ziren arakatzeko gabiltza. Hortik zehaztasun guztiak ateratzea da nahi duguna: izen-abizenak, zein egoeratan izan ziren atxilotuak, non, erantzuleak eta bestelako elementuak: lan handia eta kolektiboa, baina beharrezkoa.

- Jasotako emaitzak espero zenituztenak dira?

Euskal Memoriaren lana martxan jarri genuenean, azken 50 urtetako erreprosiorekin ondorioak aztertzen hasi ginen; hor konturatu ginen hutsune handiak zeudela. Torturatuak kasuan, uste bagenuen 50 urte hauetan 10.000 lagun inguru torturatu dituztela, kopuru horren portzentaia txiki geratzen zela ikusi genuen: ezkutuan dagoen errealitatea dago hor. Deskubritzen dihardugu lagun

batzuek (jaso barik geneukanak) torturatuak izan zirela edo ez; eta beste batzuk, ordea, orain ari direla esaten lehenengo aldiz torturatuak izan zirela. Arakatzeko horretan errealitateaz jabetzen hasi gara; hor zegoen, gordeta, baina ezezaguna izateaz gain, jaso barik zegoen. Egira gehiago hurbiltzen ari gara eta ondorioak biltzeko hurbiltzen hasi gara. Ziurrenik ez dugu guztia osatu eta eza-gutuko, baina aurrerapauso handia emango dugulakoan gaude.

- Amaierako epea jarri diozue lanari?

Memoria tratatu dugu, baina hori berrosatzea eta berregitea eskatzen duten atal horien arakatzeko eta bilduman lan iraunkorra egiten dihardugu: horregatik da ezinbestekoa lana herriz-herri egitea. Urtero, dibulgaziorako eta gure konpromisoa betetzeko, lan bat argitaratzea dugu helburu. Erroldaren eta torturaren gai hau aurten kale-ratuko dugun liburuarekin dago lotuta. Udarako bildu beharrezko guztia bilduta, liburua urtearen amaieran aterako dugu. Torturaren lan honek dimentsio kuantitatibo handia izango du, errolda dihardugulako osatzen; eta kualitatiboa, testingantzak jasotzen ere badihardugu-eta.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.com



Baserritar gazteak lehenengoz elkartu ziren.



Sostoaoko kalejira.

Hotzari aurre eginda, santaeskean

Zapatuan, Santa Ageda bezperan, kalejiran ibili ziren Kaleetan Kantuzeko jubilatutako eta Sostoa abesbatzakoak. Azken horiek, gainera, Santa Agedari koplak abesteko irteeran Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako hainbat trikitilariren laguntza izan zuten eta, kalejira amaituta, hotzari aurre egiteko modu ezinhobea aurkitu zuten, Auzokoak elkartekoek gonbidatuta Edozer elkartearen salda beroa eta txorizoa hartuta. Kaleetan Kantuz-ekoak ere talde polita osatu zuten eta herriko kaleetan abesten ibili ziren. Eta domeka goizean, berriz, lehenengoz elkartu ziren gure herriko baserritar gazteak, bertsolari eta trikitilariak lagunduta Mandiola eta Gorosta auzoetako baserrietan santaeskean ibiltzeko.



Baserriz baserri egindako ibilbideari herriko kaleetan egindakoak jarraitu zion. / LEIRE ITURBE

Koko-marruak Arrateko baserrietan

Zapatuko hotzak eta bota zuen euriak eta elurrak ez zuten lor-tu koko-marruak kikitzea eta, aurreikusitakoari jarraituta, Kezka dantza taldekoek, Italiako Rocca Grimaldatik etortitako taldearekin batera, goizean goizetik hasi ziren koko-dantzak eskaintzen, merkatu plazan lehenengo, Arrate-balleko baserrietan ondoren eta, azkenik, Eibarko erdialdeko kaleetan. Aurreko asteburuko saioaren ondoren, eibartarrek asteburu honetan bueltatuko diete bisita italiarrei, domekan Piamonteko eskualderaino Eibarko koko-dantzak eramanda.


Eibar definitzeko berba bila

UDAL EUSKALTEGIAK ETA AEK-K, UDALAREN LANKIDETZAZ, Eibarko herria proposen definitzen duen berba aukeratzeko lehiaketa antolatuta dute. Parte hartu nahi duenak egokien deritzon berba aukeratu eta euskaltegiatako batera zuzenean joanda, zein posta elektronikoz, euskaltegiaeibar@telefonica.net edo eibar@ae.org helbidera bidalita aurkeztu beharko du otsailaren 20rako. Aurkeztutako berbak www.eibarko-euskara.com webgunean botoa emateko moduan ipiniko dituzte, otsailaren 23tik martxoaren 2ra bitartean eta saria emateko orduan epaimahaiaren erabakia eta jasotako boto-kopurua hartuko dituzte kontuan. Sari bi emango dituzte: irabazlearentzat Coliseoko emanaldi baterako sarrera bi (antzerki



jardunaldietakoak salbu), Armagintza Museorako sarrera bi, Kalamuako Parlamentua jokoa eta Gotzon Iparragirrenen "Eibar Oasi liberala" liburua, eta zozketa bidez ateratzen denarentzat, berriz, Kalamuako Parlamentua jokoa eta Gotzon Iparragirrenen "Eibar Oasi liberala" liburua.

"Hiperasia" erakusketa gaur zabalduko da




GAUR ARRATSALDEAN INAUGURATUKO DA PORTALEAN "Hiperasia" izenburuko erakusketa. Martxoaren 4ra arte ikusgai egongo den erakusketa 21 artistaren artelanak batzen ditu. Artista gehienak Debarrena eta Debagoienakoak dira eta tartean eibartar asko daude. Fernando de Vicente, Peio Alberdi, Marina Barrena, José Antonio Azpilicuetta, Vicente Iriondo, Alberto Ibañez, Aitor Etxebarria, José Félix Igartua, J.R. Elorza, Baroja Collet, Marino Plaza, Mikel Campo, Bárbara Stammel, Keixeta, Aitor Sarasketa, Ricardo Azkarkorta, Bingen de Pedro, Iñigo Arregi, Juan Luis Góikolea, Asier Laspiur eta José Arana dira parte-hartzen duten artistak eta euren lanak ohiko ordutegian, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara ikusteko aukera izango da.

Karmele Jaiorekin solasean


JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK MARTXAN DAUKAN IRAKURKETA KLUBEAN hil honetan Karmele Jaioren "Las manos de mi madre" liburua irakurtzen dihardute eta, irakurketa honi dagokion saioa osatzeko, idazlea liburuaren inguruan berba egiteko Eibarrera, liburutegira etorriko da martitzenean, 19.00etan. Saioa

irakurketa klubeko partaideentzat ez ezik interesa duen edozeinentzat zabalik egongo da.



Umeendako antzezkiuna bihar Coliseoan

ZAPATUAN 17.00-ETATIK AUERRERA TARTEAN TALDEAK "ALABATXO" umeendako ikuskizuna eskainiko du Coliseoan. Jokin Oregik zuzenduta, antzezleak Ana Meabe, Javier Renobales eta José Ramón Soroz "Pinpix" dira eta sarrerak 5 eurotan ipiniko dituzte salgai, ikuskizuna hasi baino ordubete lehenago.



laburrak

LATINAMERIKAKO MUSIKA

Gaur 20.30etatik aurrera Latinamerikako doinuak protagonista izango dira Coliseoan, Ana Caballerok zuzendutako jaialdixan. Miren Basterretxeak, Ainhoa Larraurik, Nathali-Sebastian bikoteak, Cristina Rodriguezek, Miren Truebak, Marta Zubiaurrek, Mikel Urkolak eta J.B. Gisasola Musika Eskolako Mariatxiak jardungo dute eta sarrerak 3 euro balio du.

IKASTAROAK

Azataporrua elkarteak ikastaro bi antolatu ditu: sukaldaritza energetikoaren ingurukoa martxoaren 3 eta 4an, 10.00etatik 12.30etara emango da eta makrobiotikaren gainekoa martxoaren 6, 13, 20 eta 27an, 19.00etatik 21.30etara. Biak Portaleko sukaldian izango dira eta izen-emateko elkartera jo daiteke (Juan Gisasola kalean), eguaztenetan 17.00etatik 20.00etara.

HIZKUNTZA ESKOLA

Eibarko Hizkuntza Eskolarako matrikula egiteko epea gaur zabaldu da. Alemana, euskara, frantsesa eta ingelesa eskainiko dituzte eta martxoaren 1era arte egongo da matrikulatzeko aukera. Informazio gehiagorako eskolaren webgunera jo daiteke (www.eoieibarheo.net).

UR-SOROSPEN IKASTAROA

Otsailaren 25etik aurrera, ur-sorospen eta birziklaia ikastaroa emango dute Ipurua kiroldegian. Izen-ematea Eibar-Ermuako Gurutze Gorrian edo 943176248 / 659464241 telefonoetara deituta egin daiteke.

Aurten Oscar sariak kutsu eibartarra daukate. Alberto Alzelai ez da Brad Pitt edo Charlize Theronen pare ibiliko alfonbra gorrian, baina berak parte-hartu duen 'Chico y Rita' animazio filma Oscarra lortzeko izendatu dute. Aurretik Goya saria birritan lortu dute eibartar honek lan egin duen pelikula bik. Ebazpena, otsailaren 26an, Los Angelesen.

ALBERTO ALZELAI, animatzailea:

"Animatzeko, lehenik aktuazioa egin behar duzu ispilu aurrean"

- Lehenik eta behin, zorionak Oscarraren izendapenarengatik. Zer sentitzen duzu horren aurrean?

Pozal! Pozgarria da beti zuk parte-hartu duzun lanek sariak jasotzea.

- 'Chico y Rita'-k Goya saria jaso zuen, Europako Zine Sarietan ere... Oscar sarietan izendatuko zutela espero zenuten?

Ez. Izan ere, ez da normala Oskarretan helduentzako animaziozko pelikulak izendatzea, are gutxiago estatu espainiarrekoak.

- Los Angelesera joango zara Oskarretako alfonbra gorrian paseatzera?

Ez, ez naiz joango. Ni pelikulako pertsonaien animatzailea izan naiz, eta proiektuaren aurpegi ezagunak errealizatzaileak eta ekoizleak dira.

- Zein izan da zure lana filmean?

Hasieran, eta hainbat hilabetetan, animazio lerroaren bila ibili nintzen Mariscalek Bartzelonan duen estudioan, gero horri jpelikularen ekoizpenean jarraitzeko. Ondoren, urte erdian pelikularen animatzaile lanak egin ditut filmeko 14 edo 15 eszena eginez.

- Nolakoa izan zen pelikularen sorkuntza edo grabazioa?

Lehen pausua eszenen irudi erreala grabatzea izan zen. Ondoren, horren gainean irudi errearen eta animazio tradizionalaren hibri-

doa bilatzen (rotoskopia deritzona) egin genuen lan animatzaileek.

- Nolako esperientzia izan da Mariscal eta Fernando Trueba bezalako jendearekin lan egitea?

Hainbat hilabetetan zehar sei pertsonatako talde batean egin nuen lan, horien artean Mariscal eta bere anai Tono zeudelarik. Mariscal tipo xelebrea da. Trueba, bestetik, lehen filmaren lehen frogak egiten genbiltzanean aurkeztu zidaten, eta harrezkero birritan ikusi nuen, ez zelako asko pasatzen handik.

- 'Chico eta Rita'-rekin lortu zenuena ez da, hala ere, zuk lortutako lehen Goya saria. Izan ere, 'El Cid' filmarekin ere lortu zenuen bat. Zer gogoratzen duzu pelikula hartaz? Oso ezberdina izan zen 'Chico y Rita'-rekin alderatuz?

'El Cid'-en egin nuen kolaborazioa txikiagoa izan zen, bakarrik hainbat eszena egin bainituen kanpoko estudio batetik.

- Animatzaileek bizitza ematen diezue marrazkiei. Aktore bat izkutatzen da zure barrerean?

Suposatzen dut hori egia dela zentzu batean; izan ere, animazioa egiteko momentuan aktuazio txiki bat egin behar duzu (ispiluaren aurrean), gero antzerako zerbait paperean islatzeko. Aurpegiko keinuentzat oso garrantzi-

tsua da eskura ispilu bat edukitzea behar duzuna egiteko erreferentziak hartzeko. Internet ere erabilgarria da animazioetarako erreferentziak bilatzeko.

- 'Hirukiak' telesailak ere zure arrastoa dauka. Non duzu nahiago lan egitea: animaziozko pelikula ala telesail batean?

Nahiago dut pelikuletan lan egitea, exigentzia maila altuagoa delako eta zure aldetik dena eman behar duzulako. Laburmetraiak, gainera, hobeto ordaintzen dituzte.

- Lan horiez gain, bestelako publizitate kanpainatan ere egin duzu lan: Asturiaseko Komunitatea, NBA, Cola Cao... Nolakoa izan da bidea horraino heltzeko?

Publizitatea interesgarria da hainbat gauzagatik. Batetik, lan puntualak dira, errentagarriagoak eta orokorrean denbora gutxiagoan egiten dira. Bestetik, teknika ezberdinekin lan egitearen plusa daukazu, beraz, normalean egiten duzunaren ezberdina izaten da. Horra heltzeko bidea gogor lan egitea da, enpresek zu ezagutzea, nola lan egiten duzun jakitea eta, batez ere, ahalik eta ate gehienetara deitzea.

- Atzera begirata, zeintzuk ziren zure marrazki bizidun gustokoenak txikitzen?

Gehien gustatzen zitzaizkidanak 'Marco', 'Heidi', 'Ulises', 'Mazinger Z'... dira.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 FAX: 943 202564

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7




laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MIREN, domekan 18 urte beteko dozulako. Ondo pasau zure egunian. Kuadrillaren partez.




Zorionak, MIREN, atzo hiru urte bete zenduaz-en-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, ELGA, zure 4. urtebetetzian. Milla muxu eta jarraitu beti bezañi alai. Keep on Rocking.




ALAITZ Herrera Urionabarrenetxea: zorionak, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, IRATI, etxeko printzesa, zure seigarren urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, LARRAITZ, sei urte bete zittuan-eta etxeko dantzarixak juan dan zapatuan. Etxekuen partez.



Zorionak, EKAIN, domekan bost urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARA, gaur lau urte betetzen dozulako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Ongi etorri, ARITZ. Poztasunez beteta, aitatxo, amatxo eta, batez be, Xabierren partez.



Zorionak, MIREIA eta GARAZI!!! Mende laurdena ia ganoraz ospatzen dogun! Muxu bana lagunen partez.

JAOTAKOAK

- Ainhize Garate Ubera. 2012-I-13.
- Izane Goy Ruiz. 2012-I-27.
- Mark Rodríguez Guede. 2012-I-27.
- Ane Lekunberri Fernández. 2012-II-3.

HILDAKOAK

- Prudencio Arozena Yarza. 85 urte. 2012-I-29.
- Clotilde Gómez Pérez. 94 urte. 2012-I-31.
- Ruben Manuel Rial Sastre. 45 urte. 2012-II-3.
- Julia Martín Reina. 92 urte. 2012-II-3.
- Esperanza Iriondo Rementería. 82 urte. 2012-II-4.
- Tomas Gutiérrez Castro. 91 urte. 2012-II-5.
- Pilar Hernando Calvo. 97 urte. 2012-II-5.
- Jose Garriga Cabo. 83 urte. 2012-II-5.
- Pedro Valera Moreno. 73 urte. 2012-II-6.
- Jose Luis Akarregi Zapirain. 88 urte. 2012-II-7.
- Rosario Sarasketa Aranzeta. 2012-II-8.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)
10ean: 22.30
11n: 17.00, 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Una boda de muerte"
 Zuzendaria: Stephan Elliot



(2 ARETOAN)
10ean: 22.30
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"La chispa de la vida"
 Zuzendaria: Alex de la Iglesia



(2 ARETOAN)
11n: 17.00
12an: 17.00

"Aita Zonbia Naiz"
 Zuzendaria: Ricardo Ramón



(ANTZOKIAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"Los descendientes"
 Zuzendaria: Alex Payne



(ANTZOKIAN)
12an: 17.00
"Winter el delfín"
 Zuzendaria: Charles Martin



horoskopoa

ARIES

Eskerrak hotzarekin ondo moldatzen zaren; bestela, azken asteotan gorriak pasako zenituzke. Eskularru eta txapelek ere laguntzen dute, ezta?

TAURUS

Dantza, korrika edo mugimendua eskatzen duen edozer gauza egiteko gogoia edukiko duzu asteburuan. Edozer hotz geratu baino lehen!

GEMINI

Morala nahiko baxu izango duzu datorren astean, nahiz eta inguruokoa animatzen saiatuko diren. Lasai, egoerak ez du asko iraungo-eta.

CANCER

Helburu handiegia jarriko dizkiozu zure buruari eta horiek lortzea zaila egingo zaizu. Asmo errealistagoak edukitzea hobe izango da zuretzat.

LEO

Pena handia emango dizu hainbeste urtetan egindako gauza bat lagatzea, baina aurrera egiteko aurrerapausoa egin beharko duzu. Gai izango zara!

VIRGO

Gauzak bere horretan lagatzea izango da onena. Araza gehiago astintzen baduzu, horren ondorioak latzak izan daitezkeelako, batez ere zuretzat.

LIBRA

Ez dituzu hainbeste azalpen eman behar. Zure lagunek ulertzen zaituzte eta ez dute ezer gehiago behar. Baloratu ezazu hori, ez da gutxi-eta.

SCORPIUS

Buruan dituzun ideia zoro horiei buelta asko emango diezu eta plan izugarria sortuko. Baina pentsatzetik gauzatzerara alde handia dago!

SAGITTARIUS

Zapatu arratsaldean txokolate beroa jateko gogo izugarria izango duzu. Bizitza emateraino ia! Gainera, barruak berotuko dituzu horrela.

CAPRICORNIUS

Denbora luzean bizitako astebururik onena pasako duzu. Egun bi izango dira, baina astebete pasa dela pentsatuko duzu. Gero, biharamona!

AQUARIUS

Urtarrila ez da erraza izan zure ekonomiarentzat, baina otsailen zorroa beteago izango duzu. Orain saiatu zaitze dirua ondo gordetzen!

PISCIS

Ez zara Rio de Janeirora joango, baina Aratoste politikak pasako dituzu herrian. Zure koko-jantziak harridura sortuko du jendearen artean.

Barixakua 10

KONTZERTUA

20.30.- Latinamerikako musika jaialdia. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00.- Varapalo taldearen kontzertua. Doan. Koskor tabernan.

Zapatua 11

SARRERAK

10.00/16.00.- Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrezalmenta. Coliseoan.

MANIFESTAZIOA

12.00.- Alfako langile batzordeak deituta, "Xantairik ez! Despidorik ez! Negoziazioa orain!" leloari jarraituta. Untzagatik.

GAZTELEKUA

17.00.- "Play Wii". Indianokua gaztelekuan.

ANTZERKIA

17.00.- "Alabatxo" umeendako antzezikizuna, Tartean-ekin. Coliseoan.

LEHIAKETA

18.00.- Koko-jantzi lehiaketa, 4-12 urte bitarteko umeentzat. El Corte Inglés-ean.

Domeka 12

SARRERAK

10.00/14.00.- Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrezalmenta. Coliseoan.

GURASOAK BERBETAN

11.00.- Pantxika eta Txinparta pailazoan ikuskizuna, *Gurasoak Berbetan egitasmoko ume eta gurasoentzat*. Portalean.

GAZTELEKUA

17.00.- Filmaren emanaldia. Indianokua gaztelekuan.

Astlehena 13

PLENOA

09.30.- 2012rako udal aurrekontuaren inguruko udalbatza. Udaletxean.

SARRERAK

10.00/14.00.- Antzerki Jardunaldietarako sarreraren aurrezalmenta. Coliseoan.

IKASTEN

16.00.- Sendabelarren foroa: txillarra eta kulandrilloa (garoa). Portalean.

PREBENTZIO ASTEA

19.00.- Larrialdien inguruko hitzaldia, DYArene eskutik. DYArene egoitzan (Pagaegi, 5).

HITZALDIA

19.00.- "Oso latza izan da. Tortura Euskal Herrian" hitzaldi-aurrekezpena. Portalean.

Martitzena 14

IKASTEN

10.00.- "Munduari buruzko ikuspegi zientifikoa", Juan Luis Ibarluzearen eskutik. Armeria Eskolan.

PREBENTZIO ASTEA

19.00.- Tailerra: hesgailuen oinarritzko tailerra, DYArene eskutik. DYA-n (Pagaegi, 5).

IDAZLEAREKIN SOLAS

19.00.- "Las manos de mi madre", Karmele Jaiorekin. Juan San Martin Liburutegian.

Eguaztena 15

TAILERRA

10.00.- "Zure lan etorkizunerako begirada" (3 ordu). Portalean.

IKASTEN

11.00.- Tertulia-kafea: "Bizitza-testamentua". Untzagako jubilatutuek. **11.00.-** Mendeurreneko ikus-entzunezkoaren proiektzioa. Armeria Eskolan.

PREBENTZIO ASTEA

19.00.- Etxeko istripuen prebentzioari buruzko hitzaldia, DYArene eskutik. DYA-n (Pagaegi, 5).

Eguena 16

IKASTEN

10.00.- "Grafologia forensea", Goyo Gravalosen eskutik. Armeria Eskolan.

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- "Silencio de amor" (Philippe Claudel). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA

19.30.- "Esperientzia historikoak eta balorazio kritikoa", Juan Manuel Sinderen eskutik. Portalean.


SUDOKUA

5			8	7			6
	7	8	1	6	9	5	
	4	6			8	3	
			4				
	3	7			1	9	
	9	2	5	4	7	8	
3			6	2			9

DENBORAPASAK

8	5	2	1	7	4	6	9	3
0	7	4	5	3	8	1	6	2
1	3	6	9	0	2	4	7	5
2	8	9	6	4	3	7	5	1
7	4	3	8	1	5	2	6	9
5	6	1	7	2	9	3	4	8
4	1	8	3	9	7	5	2	6
3	2	5	4	6	8	9	1	7
6	9	7	2	5	1	8	3	4

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Otsailaren 12ra arte

ALBERTO EGURROLAren "Maixuen aztarnak jarraitzen" marrazki eta margoak. *Topalekuan.*

– Martxoaren 4ra arte

"HIPERASIA". *Portalean.*

ikastaroak

– **Ur-sorospen eta birziklatze ikastaroa.**

Otsailaren 25etik aurrera, Ipurua kiroldegian. Izen-ematea eta informazioa: Eibar-Ermuako Gurutze Gorrian, 943176248 edo 659464241 telefonoetan.

– **Sukaldaritza energetikoa eta makrobiotika.**

Martxoaren 3 eta 4an, 10.00etatik 12.30etara eta *martxoaren 6, 13, 20 eta 27an*, 19.00etatik 21.30etara. Izen-ematea eta informazioa: Azataporrúa elkartearen (Juan Gisasola kalean), eguaztenetan 17.00etatik 20.00etara.

lehiaketak

– **Berba Lehiaketa.**

Gaia: Eibar herria egokien definitzen duen berba. Informazioa eta lanak entregatzea: *Otsailaren 20ra arte*, Udal Euskaltegian, AEK-n edo www.eibarko-euskara.com webgunean.

– **Marrazki lehiaketa.**

Gaia: Aratosten inguruko marrazki lehiaketa (14 urtera arteko umeentzat). Marrazkiak Errebal-Ibarkurutze inguruko dendetan eta tabernetan hartuko dituzte, *otsailaren 13ra arte*, eta parte-hartzaileen artean opari-zozketa egingo dute.

– **Laztan lehiaketa.**

San Balentin egunaren ingurukoa. Non: El Corte Inglés-ean argazkia ateratzeko photocall-ean (otsailaren 11ra arte). Lanak aurkeztea: *Otsailaren 13ra arte*, sanvalentineibar@elcorteingles.es

– **Aratosteetan dotoreen apaindutako taberna.**

Izen-ematea eta informazioa: *Otsailaren 16ra arte*, Pegoran.

– **Portada lehiaketa.**

XXIX. Día das Letras Galegas egitaraurako azala aukeratzeko lehiaketa. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 28ra arte*, As Burgas Galiziako Etxean (Urkizu, 11 behean).

– **Industria-argazkilaritza.**

Gaiak: Industria-argazkilaritza eta Armeria Eskolako Mendeurrena. Informazioa eta lanak aurkeztea: *Otsailaren 24ra arte*, Armeria Eskolan edo aaa@armeriaeskola.com helbidean.

– **Eguen Zuri Argazki Lehiaketa.**

Lanak entregatzea eta informazioa: *Martxoaren 20ra arte*, Arrate Kultur Elkartearen.

farmaziak

10, barixakua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

11, zapatua

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

12, domeka

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

13, astelehena

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

14, martitzena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

15, eguaztena

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

16, eguena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

17, barixakua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS delai112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea943 70 84 39
Udaltzaingoa943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Mendaro osp.943 03 28 00
Anbulategia943 03 25 00
Torrekuia943 03 26 50
Errepideak902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa902 10 12 10
Taxiak943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon.	..629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 15.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Amañako plazoletan. 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Dena kanpora begira. 125.000 euro. Tel. 685-728995.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztatua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
- Eibarko Txikito kalean pisua salgai. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Igogailua. 168.000 euro. Tel. 672-622774.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 618-734000.
- Pisua alokagai Eibar erdialdean. Erabat berriztatua. 120 m². 900 euro. Tel. 670-779713.

1.3. Konpartitzeko

- Pisua konpartitzeko emakumea behar da. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Lokala salgai Ubitxa behean. Tel. 617-688311. Maria.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 695-804895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-423493.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 677-689227. Aitziber.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 666-986611.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 674-027961.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-873547. Socorro.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-742787. Yesenia.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 633-150376.
- Mutila eskaintzen da igeltsero, enkofratzaile edo pintore jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 622-370726.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera jarduteko, etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-236564.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Externa. Tel. 638-338816.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 689-273664.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta kamarera edo sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Egun osorako edo orduka. Tel. 634-007292.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, etxeak garbitzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-474923.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 648-603029.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 609-529165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-303534.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 634-887814.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 646-887739.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 633-150376.
- Mutila eskaintzen da dendako saltzaile, garbitzaile edo pintore jarduteko. Tel. 622-139912.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 679-306518.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Orduka edo interna. Tel. 659-908513.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 650-152866.
- Neska eskaintzen da tabernak, soziedadeak edo etxeak garbitzeko. Tel. 638-527489.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka edo jornada osoz. Tel. 638-338816.
- Ileapaintzailea eskaintzen da ile-apaindegi mistoan lan egiteko. 11 urteko esperientzia. Deitu 17.00etatik 19.00etara. Tel. 681-081763.
- Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-929348.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Esperientzia. Tel. 652-248893.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 680-973549.
- Neska euskalduna eskaintzen da ileapaindegian lan egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 610-096417.
- Ileapaintzailea eskaintzen etxez etxe nagusiak orrazteko. Tel. 627-855223.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da nagusia zaintzeko. Orduka. Deitu 18.30etik aurrera. Tel. 696-252210.
- Kamarera/o eta sukaldaria behar dira Arrateko jatetxe batean. Nahitaezkoa esperientzia. Tel. 656-752658.
- Sukaldaria behar da taberna baterako. Tel. 629-354370.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Ordenagailua erabiltzen irakasten da. Word, Accel, Excel, web orriak egiten ikasi etabar. Merke. Tel. 679-740061.
- Bibolina jotzen irakatsiko nuke asteburuetan. Metodo erraza eta dibertigarria: solfeo edo solfeorik gabe. Adin guztiak. Asteburuetan. Merke. Tel. 679-740061.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Egurrezko trona (silla eta mahaia bihurtzeko gai), autoarendako segurtasun-aulkia (9tik 25 kilora), bidaia-sehaska eta bizikleta (3 urte) salgai. Merke. Tel. 617-256466.

6.4. Bestelakoak

- Bikiendako aulki euritakoa oparitzen da. Tel. 669-208763.
- Zure elkarte gastronomikoan bazkide berria behar baduzu, deitu. Tel. 646-293311.

Diproca ATEAK


bizilekuetan adituak

6 ATE:
2 BEIRADUN
4 ITSU

- MARKO berria
- Kromozko ERROSETAK
- Matelux KRISTALAK
- ESKULANA

**12 HILABETETAN ORDAINTZEKO
AUKERA INTERESIK GABE**

Tfnoa. **943 10 83 00** Faxa. **943 10 83 02**



Etxe erreformetan
30 urtetik gorako
esperientzia.

Ateak, armairuak,
oholtzak, leihoak, etb...

**Isasi, 17 - behea
EIBAR**


ETORKIZUNeko ATEAK GAUR

CPL-n
gaineztatutako
egurra

6 diseinu eksklusibo



Edozein eredu:
2.650 € BEZ barne

Kalitate handiko atepak, iraunkorrak,
garbigarriak, kolorez aldatzen ez direnak



DEBA

Markiegi, 6 (Tel. 943-608052)




LEKEITIO

Sta. Elena, z/g (Tel. 94-6842655)

Aurten Lekeitioko edo Debako Aisia hoteletan ezkontzen bazara, honakoa jasoko duzu opari:

Autobusa doan zure gonbidatuentzat / 2 ordu DJ-arekin / Afari osteko mokaduak barra librean
Deskontu handiak argazki erreportajea (ezkontzarako doaneko gonbidapenak barne)
Suite Junior motako logela eztei-gauerako (edo bono baliokidea) + "Jarri Galant" pack termala


Aipatutako eskaintza 100 gonbidatutik gorako ezkontzetarako da. Gonbidatu gutxiagorekin, galdetu hotelean baldintza eta opariei buruz



deba@aisiahoteles.com



lekeitio@aisiahoteles.com



TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




T. Etxebarria, 7

Tel. 943 70 23 84

Tel. 943 70 23 78



ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK